

# PRAKTIKA EGOKIEN LIBURUA



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua

—  
Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi



# SARRERA

Ondorengo hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eginitako *II. Praktika Egokien Liburua* (PEL hemendik aurrera) da eta bi helburu nagusi ditu bere baitan: zeharkako gaiak nola landuko diren zehaztea eta EGKren lana egiteko modua finkatzea. Hau 2013an egin zenaren berrikuspena da, I. Berdintasun Planean zehazten den moduan.

EGKren balioak honakoak dira: gertutasuna, pluraltasuna, behakortasuna, aldarrikakortasuna eta sare-sortzailea izatea. Horiek ondorengo ataletan biltzen diren praktika anitzetan islatuko dira; batzuk jada betetzen ari dira, beste batzuk betetzeko bidean daude. Eta, azkenik, berriak izateagatik hemendik aurrera bete beharko direnak ere badaude.

PELk gomendioak baino arauak ezartzen dituelako, honen edukia oinarritzakoa, logikoa, argia eta errealista da; honen hizkuntza teknikoa eta zuhurra; eta honen orientazioa bateratzailea eta adostasunezkoa.

Egungo eta etorkizuneko EGKrentzat oso tresna garrantzitsua izan daiteke hau, ikuspegi, balio eta jardueri jarraipena ematen laguntzen baitu. Gainera erreferentziarako abiapuntua ere bada, bera garatzeko edo neurri zehatzagoak jasoko dituzten beste dokumentu batzuk planteatzeko aukera ematen duelako.

PEL honek, praktikak zehazteaz gain konpromiso batzuk ere biltzen ditu:

- Dokumentu hau lau urtero berrikusiko dute Batzorde Iraunkorreko kideek eta Lantalde Teknikoko langileek, Berdintasun Plana berritzearekin batera.
- Urtero liburuan ezarritako ekintzen ebaluazioa egingo dute Batzorde Iraunkorreko kideek eta Lantalde Teknikoko langileek.
- Batzorde Iraunkorreko kidea eta teknikari bakoitza sartzean liburu hau irakurri beharko du. Batzorde Iraunkorreko zein Lantalde Teknikoko kide berri orori EGK zer den azaltzen denean edo erreleboa egitean PELa emango zaio irakur dezan.

# EGK GAZTEONTZAT

Atal honetan gai ezberdinak biltzen dira: aniztasun funtzionala, kontziliazioa eta epeak eta kulturartekotasuna. Hauek guztiek helburu eta ikuspegi berdinak dituzte: gazteon ongizatea eta pertsonen eskubideak bermatzea.

EGK-k duen eginkizuna gazteria defendatzea da, baina gazteok gazte izateaz gain, gizakiak ere bagara. Hau, begi bistakoa izanda ere, askotan ahaztu edo ezkutatu egiten da beste kontzeptuen izenean.

Horregatik eta egoera pertsonal, fisiko edota kulturaleri erantzuna emateko nahian, PELk hurrengo hau jaso du:

## 1. Aniztasun funtzionala

- Ahal den neurrian, EGKren egoitzen esparru nagusiak pertsonen egoera funtzional guztiei egokituak izango dira.
  - Oraindik egokituta ez dauden esparru fisikoei hobekuntzak egingo zaizkie, ahalmenaren arabera.
- Komunikazioari dagokionean, komunikatzeko behar bereziak dituzten pertsonen EGKren partetik hauek asetzeko bideak erraztuko zaizkie. Bestalde, egiten diren topaketa guztietan zeinu hizkuntza egotea bermatuko da parte-hartzaileetako batek hala eskatzen duenean.
- EGK-k antolatzen dituen kanpoko jarduera guztietan aniztasun funtzionala kontuan hartuko da eta alde zuzenetik esparru fisikoen irisgarritasuna bermatuko da.
- EGK-k lantzen dituen ildoetan eta dinamiketan aniztasun funtzionala eta gazteriarren gaia ardatzen artean izango dira.

## 2. Kontziliazioa, dinamizazioa eta epeak

- Partaidetza eta bizitza pertsonala bateragarriak izateko helburuarekin, kontziliazioaren aldeko jarrera izango du EGK-k. Horretarako, EGKn erabakitzen diren dinamikek eta epeak beti barnebilduko dituzte hurrengo bi puntu hauek: besteekiko errespetua eta adostasuna.
  - Besteekiko errespetua: parte-hartzaile baten eskuragarritasuna eta egoera pertsonala ezberdina izan daitekeelako beste batenarekin alderatuta.
    - > EGKren baitan onartzen da pertsona gazte baten bizitzan une ezberdinetan inplikazio-maila ezberdinak garatzen direla.
    - > Adostasuna: dinamika bat edo epeak erabakitzean inplikatuaren adostasuna beharrezkoa izango da. Partaideen aldetik berezko inplikazioa eskatzen denean erabakia aho batez hartu beharko da.
    - > Denen partaidetza: Ahal den neurrian ahalik eta partaide gehien inplikazioa bultzatuko da EGKren dinamiketan zein jarduera nagusietan, partaidetza errazten duten tresnak eta dinamikak bilatuz. Zaugarriak diren pertsonen ikuspuntua bereziki zainduko da eta adin tarte osoaren partaidetza bultzatuko da.
    - > Orokorrean: eraginkortasuna, baliagarritasuna, erantzukizuna, logika, duplizitate eza, elkarlana, aipatutako errespetua, adostasuna eta eskubideen berdintasuna izango dira printzipio nagusiak EGKren jarduera praktikoa.

- Honekin batera, berezko ahalegina egingo du EGK-k gazte eragileen arteko elkarlana sustatzeko bidean, eta zeregin horretan jardutean aurretik adieraziko printzipioak ezarriko dira.

### 3. Kulturartekotasuna

- EGK euskal gazteen artean dauden kultur ezberdinak jasotzen eta hauei ikusgarritasuna ematen ahaleginduko da:
  - Berezko harreman baten bitartez, kulturartekotasuna lantzen duten elkarteekin elkarlana sustatu eta kide bihurtzeko prozesuan lagundu.
  - EGKn dauden gazte elkarteek kultur-aniztasuna kontuan har dezaten sentibilizatu, eta gazteei zuzendutako kanpainak burutu.
  - Errealitate berriei begira, kulturartekotasunaren aldeko gazte elkarte berriak sustatu.
  - Hizkuntza ez estereotipatu eta ez arrazistaren erabilera bermatuko da, aniztasun kulturalarekin bat datorrena.



# FEMINISMOA

EGKren baitan, feminismoa oinarrizko ardatza izango da. Hori dela-eta atal honetan emakumeen eta LTGBI+ kolektiboko pertsonen eskubideak, ikusgarritasuna eta protagonismoa bermatzeko puntuak aipatzen dira genero-ikuspegi anitza aintzat hartuz. Honekin batera, hainbat norabide ezarri ditu dokumentuak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan garatzekoak.

## 1. Ikusgarritasuna bermatu

- EGK-k lantzen dituen ildoetan eta dinamiketan emakume gazteen eta LGTBI+ kolektiboko kideen presentzia eta ikusgarritasuna ardatza izango da beti.
  - Hori dela-eta, ateratzen diren idatzizko zein ahozko ondorioetan eta txostenetan emakumeen eta LGTBI+ kolektiboko kideen egoera azalduko da, zapalkuntza bikoitzak nabarmenduz.
  - Aterako diren euskarri eta irudietan (kartelak, argazkiak, bideoak, esku-orriak, txostenak...) emakume eta LGTBI+ kolektiboko kideei presentzia emango zaie.
  - Errealitate heteronormatiboak soilik kontuan hartzen dituzten ikuspegiak saihestuko dira.
- Ahal den neurrian EGKren erabakitze-eremu guztietan emakumeak diren kideen ordezkaritza %40 koa baino handiagoa izango da. Eta LGTBI+ kolektiboko diskurtsoen presentziak erabakitze-eremuetan egotea bermatuko da.
- Genero-identitate bitarraz gain, beste identitateak kontuan izango dira bai txostenetan eta baita iruditegian ere.

## 2. Taldeei babesa ematea

- Talde feministei eta emakumeen aldarrikapenak lantzen dituzten elkarteei berezko babesa eskainiko die EGK-k, bai sortuta daudenei, bai sortuko direnei.
- LGTBI+ kolektiboari eta hauen eskubideak lantzen dituzten elkarteei berezko babesa eskainiko die EGK-k, bai sortuta daudenei, bai sortuko direnei.

## 3. Jarrera matxista eta LGTBI+fobikoen gaineko gaitzespena

- Edozein jarrera matxista edo LGTBI+fobiko bateraezina izango da EGKn jardutearekin. Burutzen duenarekiko/ dutenekiko antolakuntza-ondorio zuzena izango du.
  - Langileen artean ematen diren indarkeria matxista eta LGTBI+fobikoak EGK-ko jazarpen protokoloaren bidez kudeatuko dira.
  - Gune Anitza zigiluaren bidez espazio fisiko zein birtualetan identitate anitzak aldarrikatuko dira eta erasorik ematekotan, erantzun egingo zaie.
  - Ekitaldi, topaketa, bilera... ematen diren erasoak II. Berdintasun Planaren baitan garatuko den protokoloaren bitartez kudeatuko dira.

## 4. Praktika hezkidetzailleak burutuko ditu

- EGK-k hezkuntza formal zein ez formalen gaia lantzen duen heinean, praktika hezkidetzailleak lantzeko konpromisoa hartzen du, baita hauek gazte eta gazte-elkarteen artean zabaltzeko ere.

# EUSKARA ETA HIZKUNTZAK

Hizkuntz-testuinguru berezi batean murgiltzen dira gazteak. EGK-k euskararekiko duen konpromisoagatik PEL honek euskara babesteko eta bultzatzeko neurriak ezarri dituen atal hau jaso du, EGKren dinamika eta prozedura guzti-guztietan euskara erabili ahal izatea helburu duena.

Gainera, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen erabilera ere bermatzen du atal honek. Euskararen eta hizkuntzen presentzia dinamizatzeko nahian PELk ondorengo hau jaso du:

## 1. Euskarari lehentasuna emango dio EGK-k

- EGKren hizkuntza korporatiboa euskara da. Hori dela-eta, komunikazio-tresnak, agur ofizialak eta beste edozein jarrera korporatibo nagusiki euskaraz izango dira. Gutunetan euskara ezkerrean joango da eta online komunikazioetan euskara lehena izango da.
- EGKren idatzizko dokumentu ofizial guztiek euskarazko bertsioa izango dute. Ahalik eta dokumentu gehien euskaraz idatziko dira.
- Ahozko transmisioan euskararen erabilera bermatuko da EGKren arduradunen eta teknikarien partetik.
- EGK-k antolatzen dituen batzordeetan, dinamiketan, ekitaldietan, lehiaketetan edo beste edozein jardueretan euskara hutsean hitz egiteko aukera izango da. Beharrezkoa izatekotan, EGKren aldetik euskal elebidunak ez diren pertsonak ulertzeko neurriak ezarriko dira.
- Euskara bultzatzen duten eragileei babesa emango zaie eta EGK-k ekimen ezberdinetan parte hartuko du.

- EGK-k egiten dituen txostenetan, dokumentuetan, idatzietan... euskara leku preferentean jarriko da. Aldi berean, ezingo da gaztelania hutsean jarri.

## 2. Gaztelania ere EGKren jardueran erabiliko da

- Ahal den neurrian, EGKren idatzizko dokumentu ofizial guztiek gaztelaniazko bertsioa izango dute.
- Gaztelania dakiten eta euskara ez dakiten pertsonen aurrean, ahozko transmisioan gaztelaniaren erabilera bermatuko da EGKren arduradunen eta teknikarien partetik, euskararekin batera.
- EGK-k antolatzen dituen batzordeetan, dinamiketan, ekitaldietan, lehiaketetan edo beste edozein jardueretan, euskarari lehentasuna emango zaion arren, parte-hartzaileek gaztelania hutsean hitz egiteko aukera izango dute.

## 3. Beste hizkuntzen presentzia ere onartuko da EGKn

- Nazioarteko harremanak sendotzeko nahian, EGKren arduradunen eta teknikarien artean behintzat ingelesez hitz egiteko gai den kide bat egongo da.
- Hau dela-eta, EGK-k antolatzen dituen batzordeetan, dinamiketan, ekitaldietan, lehiaketetan zein beste edozein jardueran, beste aukerarik ez dagoenean, parte-hartzaileek euren jatorrizko hizkuntzan hitz egiteko aukera izango dute, eta ahal den neurrian itzuliko da, betiere baldintzen arabera.

# EKOLOGIA

Ekologiaren inguruan oinarritzkoak diren jardueretan inplikatzeari ezinbestekoa da EGKren esparruko erakunde batentzat. Ekologismoaren beharraren inguruan gazteen kontzientzia gero eta handiagoa da eta EGK-k honen isla izan behar du.

Horregatik, ingurumena zaintzeko eta EGK erakunde iraunkorra izateko nahian, PELk hurrengo hau jasotzen du:

- EGKren ingurumenari buruzko jarrera hiru kontzeptu hauetan oinarrituko da:
  - Murriztapena: Ahalik eta gutxien kontsumitzearen jarrera.
  - Berrerrabilpena: Produktuei bizitza-zikloa luzatzen dion jarrera.
  - Birziklatzea: Erabilia dagoen produktu bat berreskuratzearen aldeko jarrera, prozesu berri bat sortzeko helburuarekin.
- EGK-k erabiltzen dituen ahalik eta material gehienak birziklatuak izango dira, erosketak berdeak eginez.
- EGKren arduradunek, teknikariek, partaideek eta gonbidatuek aipatutako printzipio hauek praktikara eramateko konpromisoa izango dute.

1. Baliabide naturalak mantentzea, energia aurrezte eta xahutzea saihesten duten produktuen erosketak. Hala izan dadin, produktu birziklatuak erostea lehenetsiko da, gehiegizko bilgarriak dituztenak (batez ere plastikodunak) saihestuko dira eta produktu hauek iraunkorrak izatea lehenetsiko da erabilera bakarra dutenen aurrean. Adibidez: boligrafo betegarriak erabiltzea, tinta amaitzean berriro bete daitezkeenak; paper birziklatua erabiltzea zuriaren ordez, inprimagailuentzako tinta naturala erostea edo etxetresna elektrikoak berriro edo erosi behar badira etiketa energetiko berdea (A-C tartekoa) izan dezatela bermatu energia ez xahutzeko.

- Hori dela-eta, EGKren jarduera orokorrari, Batzar Orokorrari, batzordeei eta beste edozein ekintzari materialak, argia, garraioak, zaborra eta gainerako ezaugarriak kontuan hartzen dituen kuota ekologikoak ezartzeko aukera izango du EGK-k.

> Balizko kuota hauek betetzeko posibleak, erosoak eta gradualak izan beharko dira.

- EGK-k garraio publikoaren erabilera sustatuko du. Alde batetik, lantalde teknikoak eta Batzorde Iraunkorrak garraio publikoa erabiliko du bidaiak egiteko, eta bestetik, bere topaketara zein bileretara etortzen diren gazteei bertaratzeko garraio publikoa erabiltzeko pizgarriak jarriko zaizkie.
- Honetaz gain, ingurumenaren zaintza lantzen duten elkartei berezko babes eskainiko die EGK-k, bai sortuta daudenei, bai sortuko direnei.
- EGK-k lantzen dituen ildoetan eta dinamiketan ingurumena eta ekologia ardatzen artean izango dira beti.





# KOMUNIKAZIOA

Definizioz, komunikazioa informazioa transmititzearen eta jasotzearen jardura da. Bere ezaugarriengatik, informazio asko jasotzen, mugitzen eta sortzen duen esparrua da EGK, barneko eremuan zein kanpokoan.

EGKrentzat komunikazioa ardatz nagusia den neurrian, honen inguruko oinarrizko neurriak erabakitzea nahitaezkoa da. Barne zein kanpo komunikazioan, mota guztietako komunikazio bide, espazio eta euskarrietan, zeharkako baloreak izango dira hizkuntza barne hartzailea eta genero-ikuspegia. Hizkuntza bakoitzean erabilitako terminologia eta formulazioak Estilo Liburuan daude zehaztuta.

Hori dela-eta, EGKren informazioaren transmisio egokia bermatu nahian, eta gazteen ahotsa modu egokienean jasotzeko asmoz, PELk hurrengo hau jaso du:

## 1. Barne-komunikazioa

• Esparru ezberdinen arteko komunikazioa.

- EGK osatzen duten esparru ezberdinen arteko komunikazioa bermatzeko tresna ezberdinak eta bide zehatzak erabiliko dira, bai gertatutakoaren berri emateko, bai egiten eta egingo dena iragartzeko ere.

> Tresna ezberdinak eta bide zehatzak hurrengoak dira: Internet (e-maila, Skype-a, sare sozialak..), ahozko komunikazioa (telefonoa, formala den aurrez aurreko ahozko transmisioa...) eta euskarri fisikoak.

> Aipatutako esparruak hurrengoak dira: Batzar Orokorra, Batzorde Iraunkorra, lantalde teknikoa, EGK-ko lantaldeak, EGK-ko elkarteak eta EGK-k sortu lezakeen beste edozein esparru.

• Orokorrean, edozein praktika, dinamika, adierazpen publiko, bilera edo agerraldi burutu ostean egindakoaren berri ematen duen euskarria jaso eta elkarbanatuko da.

- Euskarriak hurrengoak izango dira: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak edota irudiak. Egokia den kasu zehaztetan ahozko komunikazioa erabili ahal izango da.

• Esparruaren baitako komunikazioa

- Lantalde teknikoari dagokionez, EGKren lanaren gaurkotasunean eragin zuzena duen heinean, honen arlo ezberdinen arteko komunikazioa bermatzeko lantaldeak dituen berezko tresnak eta bideak erabiliko dira.

- Aldi berean, Batzorde Iraunkorra osatzen duten kideen arteko komunikazioa bermatzeko bideak erabili behar izango dira.

- Lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren artean dagoen harremana sendotzeko beharrezko bideak erabiliko dira.

## 2. Kanpoko komunikazioa

• Kanpoko komunikazioaren jardueran Praktika Egokien Liburu honetan dauden aurreko jarraibideak aintzat hartuko dira.

- Informazioaren eta iritziaren igorpena EGKren aldetik adostua, jarraitua, dosifikatua, koherentea, testuinguruari egokitua eta aproposa izango da. EGKren kanpoko komunikazioak hiru atal hauek izango ditu: a) EGKren ingurukoa b) EGK-ko elkarreana c) EGKri dagozkion jarduera esparruena.
- Batzorde Iraunkor eta Lantalde Teknikoko kideekin koordinatu ostean EGK-k elkarrean esku jarriko ditu baliabide eta bitarteko teknikoak euren behar komunikatiboak asetzeko. Era honetara, PELaren bitartez EGK-ko elkarrean eta hauek egiten duten lanari zabalpena eta ikusgarritasuna emateko konpromisoa berresten da, hauen jarduera zein momentuko egoeretako kanal izanez.
- EGKren komunikaziorako tresnak (webgunea, sare sozialak, eta prozedura oro har) irizpide tekniko profesioaletan oinarrituko dira.
- EGK-k duen izaera publikoagatik gardentasuna izango du iparrorratz.

### 3. Komunikazioan erabiliko den iruditegia eta hizkuntza

- EGK-k komunikatzeko erabiliko duen hizkuntzaren erabilerari dagokionez, EGKren estilo liburua jarraituko du.
- Erabiliko dituen komunikatzeko euskarri guztietan ez da diskriminazio matxista eta LGTBI+ fobikorik emango. Aldi berean, eta aipaturiko ikusgarritasuna kontuan izanik, erabiliko den iruditegia ez da estereotipatua izango.
- Egingo diren dokumentu, txosten eta bestelako euskarri denek EGKren txantiloia eramango dute beti, Estilo

Liburuan zehaztuta dauden Word eredua, tipografiak eta kolore korporatiboak erabiliz.

### 4. Batzorde Iraunkorreko kideen eginkizun eta betebeharrak

- Bere jatorriko elkarte / erakunde / taldearekin koordinatzea.
- Batzorde Iraunkorra osatzen duten elkarte eta taldeen arteko erlazioak hobetzea.
- Instituzioen aurrean solas kritiko eta irmoa mantentzea, beharrezkoa denean.
- Topaketa eta lanerako espazio berriak sortzea gazteen-tzat, elkartegintzan dihardutenentzat nagusiki.

### 5. Batzorde Iraunkorra eta Batzorde Teknikoaren arteko harremana

- Harremana aldebikoa izango da iraunkorkide-teknikarien artean. Hala, proiektuen jarraipena egingo da eta lantaldean edo iraunkorrean sortzen diren tresnak partekatuko dira, bereziki teknikariaren eta bere iraunkorreko loturaren artean.
- Asanblada Orokorraren aurretik proiektuak elkarrekin diseinatzeko antolakuntza espazioak sortuko dira.
- Behin urteko memoria izanda, honen balorazioa egiteko antolakuntza espazioak sortuko dira.
- Harremanaren urteko jarraipena egingo da.

# EKITALDIETAN ZAINZA BERMATZEA

1. EGK-k antolatzen dituen ekitaldietan, jakirik egotekotan honakoa hartuko da kontuan:
  - Parte-hartzaileen balizko behar bereziak kontuan hartzeko, aldez aurretik galdetuko da hauei buruz.
  - Ekitaldietan bertako produktuak egoteari lehenetsuna emango zaio.
2. EGK-k, antolatzen dituen ekitaldi presentzialetan, jarraipen eta partaidetza telematikoa egon ahal izatea bermatuko du ahal den neurrian.
3. Ekitaldi guztietan datuen babesa bermatzeko neurri guztiak kontuan hartuko dira. Bai irudiei eta ahotsari dagokionean, baita partaidetzako datuei dagokionean ere.
4. Topaketa guztien ondoren, egindakoa ebaluatzeko eta lurreratze ariketa bat egiteko tresna batzuk sortuko dira etorkizuneko hobekuntzetara ematera eramango dutenak.
5. Kontziliazioa bermatze aldera, topaketa guztietan bertaratuko diren pertsonen umeak zaintzeko beharrak balituzte, horiek zaintzeko neurriak erabiliko dira. Hala nola, beharra izatekotan, umeen zaintzarako zerbitzua eskainiko da eta hau aldez aurretik galdetuko da.





## EBALUAZIOA

a) Zer baloratuko da

- I) Helburuak bete diren edo ez bilduko da.
- II) Hartutako neurrien ondorio kualitatiboak zeintzuk izan diren neurtuko da.
- III) Txostenean bildutako alorrak gazterian inpakturik izan duen edo ez ikusiko da.

b) Zein maiztasunekin baloratuko da

- I) PELaren edukiak ebaluatu 4 urtetik behin berrikusiko dira maila orokorrean. Hala, lau urteko epearen ondoren, PEL berregingo da.
- II) Lan-arloka PELan ezarrita dauden ekintzen ebaluazioa egingo da urtero.

c) Baloratzeko irizpideak

- I) PEL ebaluatzeko espazioak sortuko dira eta bertan hitz egindakoa jasoko da.

